

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

2010-2011



LUIS BRIÑAS

Santutxu

Santutxu



**Ikastetxeko Gida
2010-2011**

www.santutxu.net



AURKIBIDEA

- Helbideak eta telefonoak.....	1
- Aurkezpena	2
- Gure proiektuak	3
- Egutegia	6
- Irakaslegoa.....	7
- Ordutegiak eta IGE	8
- Lan taldeak eta proiektuen arduradunak.....	9
- HNPko jarduerak eta osagarriak.....	10
- Haur Hezkuntzako arautegia (HH)	11
- Lehen Hezkuntzako arautegia (LH).....	12
- Udaleko Osasun Taldea, aseguru eta laguntza medikoa.....	13
- Jantokia.....	14

TELEFONO ETA HELBIDEAK

- Haur Hezkuntza.- M. Menéndez y Pelayo 23
94 433 22 98
- Lehen Hezkuntza.- Iturriaga 58
94 411 11 81
e-mail.- 014126aa@hezkuntza.net
www.santutxu.net
- Guraso Elkartea.-
 - 94 412 02 22 - 634 45 03 90 – 634 46 22 30
 - apa.luisbrinas@gmail.com
- Jantokiko arduraduna.- 675 705 791

Guraso agurgarriak:

Aurreko urteetan bezela, 2010-11 ikasturteko gida aurkezten dizuegu. Honen bidez, interesgarriak diren hainbat argibide eta informazioa ematen saiatu gara. www.santutxu.net web orrialdean ere ikus dezakezue.

Zuzendaritza taldeak irakasle, hezitzaile, atezain eta langile guztiekin batera agur bero bat bidali nahi dizuegu. Aurten erronka berri bat hastera goaz eta kalitatezko hezkuntza lortzeko kide guztion arteko harreman onak izatea, helburutzat daukagu.

Ikasleen garapen integrala abiapuntutzat izanda, askatasun eta errespetuko giroan oinarritzen ahaleginduko gara.

Beste barik, eta orain eskuratzen duzuen gida hau, zuen gustukoa eta baliagarria izango zaizuelakoan, gure agurrik beroena.

Zuzendaritza taldea

Zuzendaria: Mari Tere Artetxe

Ikasketa Burua: Garbiñe Gonzalez

Idazkaria: Nagore Landa

Bilbon, 2010ko Urria.

GURE PROIEKTUAK

HIZKUNTZ NORMALKUNTZAKO PROIEKTUA (HNP)

BAI EUSKARARI

Beste hainbat ikastetxetan bezala, LUIS BRIÑAS-SANTUTXUn ere aurrera daramagu Hizkuntza Normalkuntzarako Programa, HNP alegia, hezkuntza-ziklo guztietan (Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan).

Honen bidez zera lortu nahi dugu: euskal hizkuntza eta kulturarekiko interesa sortaraziz eta ikasleak motibatuz erabilera bultzatu, epe luzera ikasleen artean giro euskalduneko taldeak sortzeko.

Helburu hau aski konplikatu da, batez ere oro har erdaldundua den gurea bezalako auzo batean, funtsezkoa da kolektibo guztien arteko koordinazioa eta laguntza (ikasleak, gurasoak, irakasleak eta langile ez irakasleak).

Euskararen etorkizunak gure parte hartze aktiboa eskatzen du, eta gauza asko egin ahal dugu:

1. Euskara erabili gure inguruko euskaldunekin
2. Geure hizkuntza etengabe zaintzen eta hobetzen ahalegindu.
3. Euskara etxetik kanpo erabiltzera animatu.
4. Euskarazko jokuak, liburuak... oparitu
5. Euskaraz egin ahal dituzten ekintzetan partehartzea aholkatu.

Kontutan izan umeak esna dagoen denboratik %17a eskolan igarotzen duela. Denbora labur horretan euskaraz arituko da. Beraz euskara hizkuntza behikularra da, hau da, beraren bidez ikasgai guztiak ikasiko ditu. Horregatik ahal bait arinen barneratu behar du euskara. Gure ahalegin guztiek berme ezin hobia, are gehiago ezinbestekoa dute zuen laguntzarekin.

IKT PLANA

IFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN BERRIEN PROIEKTUA

Luis Briñas Santutxu IHI-ak, proiektu honekin, ikastetxe irekiaren kontzeptuan sakontzea du xedea, gizarte eta eskola komunitate osoari ezaguera bidea erraztuz, Baliabide Zentro bat sortzearekin eta Zentro hauxe, denbora osoan funtzionatzen mantenduz.

Curriculum ireki batera eboluzionatzearen alde apustu egiten dugu, Informazio eta Komunikazio Teknologiak sartuz, baliabide didaktiko moduan, ikaste eta heziketaren irispidean egongo direlako.

IKT-ek ematen dizkiguten funtzionaltasunak aprobetxatzen ditugu (informazio prozesuak, ezaguera eskuragarri izatea, komunikazio kanalak, gizarte interakzioa,...). **Ikaste eta irakaste prozesu berriak ahalbidetu nahi ditugu**, on-line ikasteko leku berriak sortzean (blogak, sareko atazak,..., moodle plataforma bat badugu, santutxu.net dominiopean), non irakasleak eta ikasleak leku berean eta aldi berean egotea ez den beharrezkoa. Teknologia berriak sartzearekin gizarte errealitatean eragina duten aldagai garrantzitsu asko aldatu nahi ditugu, ikaste egoera hobetzeko bidea eta norabidea markatuz, bai eta hezkuntza kalitatean eta gizarte integrazioan ondorioak izan dadin ere.

Proiektu honetan parte hartzeak irakasleen inplikazioa posible egiten du eta goi mailako aukerak eta xedek mantentzea, nork bere gain rol aktibo bat hartzea suposatzen duelako, lan taldean, prestakuntzan eta ikasleei ematen diegun laguntza hobetzeko konpromisoetan. Honekin, eskola eraginkortasuna optimizatzea espero dugu, kualifikazio, koordinazio eta inplikazio premisapean lan kooperatibo batean.



Ikasturte honek Eskola 2.0 programaren bigarren aurrerapausoa dakar.

Programa honek hezkuntzan Informazioaren eta Komunikazioaren

teknologia berriak sartzen ditu. Ikasturte honetan ikusiko da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasgelak guztiz digitalizatu, irakasleak software librea eta metodologia berriak erabiltzeko prestatu eta multimedia-edukiak egiten direnean. Helburuak:

- Ohiko ikasgelak ikasgela digitalak bilakatzea.
- Irakasleak IKT-dun gaitasunetan trebatzea.
- Ikasgeletako metodologia aldaketari laguntzea.
- Eten digitala murriztea.
- Lan dinamikoa, partehartzailea, beste ikastetxeekin lankidetzan eta sarean. Sustatzea.
- Heziketa kalitatea hobetzea.

HIZKUNTZA INDARTZEKO PROIEKTUA (H.I.P.I.)

Hizkuntza indartzeko proiektuaren bidez laguntza eskaintzen diegu eskolan berriki sartutako ikasle etorkinei. Euskal hezkuntza sisteman orain dela gutxi sartu direnez, laguntza berezia behar dute trebetasun linguistikoak lortzeko, eta haien maileri dagokien curriculum bereganatzeko.

Besteak beste, hauek dira proposatzen diren helburuak:

- Euskara ez dakiten ikasle etorkinei berariazko laguntza ahalbidetzea, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak eskuratzeko bitartekoak emanez.
- Ikasle horiek euskal hezkuntza sisteman sartzen laguntzea, eskolan eta gizartean lehenbailehen eta ahalik eta baldintza onenetan integra daitezten lortzeko.

Proiektu honen bidez gure eskolak, gizarteak egun duen kultura-aniztasunari erantzun egokia emango dio, gure kulturaren balioak garatuz, eta, aldi berean, eskola kulturen arteko dimentsiora irekiz.

BERRIKUNTZA EKINTZA PROIEKTUA

Berrikuntza ekintza honek tertulia literarioak bultzatzeko asmoa du. Tertuliak elkarrizketa eta hausnarketa sustatzeko tresnak dira testu baten inguruan sor litezkeen interpretazioen bidez.

Tertulia dialogikoen metodologiaren abiapuntua irakurketa dialogikoa da, hau da, testuak irakurtzea, zentzua emanez, testuak dioena ulertuz eta interpretatuz, espazio bera partekatzen dutenen arteko elkarrizketaren bidez. Iritziak eta ikuspuntu desberdinak adieraziz, esku-hartzen duten partaide guztiek irakurri dutenari buruzko iritziak azaldu eta partekatu egiten dituzte. Prozesu honetan, besteak beste, ikasleek adierazpen estrategiak garatu beharko dituzte iritziak emateko, besteenak onartzeko edota zalantzak adierazteko, adierazi nahi dutena modu koherentean esateko eta komunikazio trukeetan modu aktiboan parte hartzeko.

Testu literarioen inguruko elkarrizketa honek informazioa aztertzen, kudeatzen, interpretatzen, balioesten, irakurritakoari zentzua ematen eta ezagutza berria modu kritikoz eraikitzen laguntzen du, hausnarketan oinarritutako elkarrizketaren bidez.

2010-2011 IKASTURTEA

IRAILA / SEPTIEMBRE

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

URRIA / OCTUBRE

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31	

AZAROA / NOVIEMBRE

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

ABENDUA / DICIEMBRE

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

URTARRILA / ENERO

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

OTSAILA / FEBRERO

					1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13				
14	15	16	17	18	19	20				
21	22	23	24	25	26	27				
28										

MARTXOA / MARZO

		1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

APIRILA / ABRIL

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

MAIATZA / MAYO

						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

EKAINA / JUNIO

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30				

IKASTURTE HASIERAKO BILERAK

HAUR HEZKUNTZA

- 2 URTE: Irailak 24
- 3 URTE: Irailak 30
- 4 URTE: Irailak 22
- 5 URTE:

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. MAILA: Irailak 23
- 2. MAILA: Irailak 22
- 3. MAILA: Irailak 30
- 4. MAILA: Irailak 29
- 5. MAILA: Urriak 6
- 6. MAILA: Urriak 14

- 1. Ebaluaketa: abenduak 3
- 2. Ebaluaketa: martxoak 11
- 3. Ebaluaketa: ekainak 22

IRAKASLEGOA

HAUR HEZKUNTZA

HH2D1	MAIDER	ARANA
Laguntzaile irakaslea	MILA	MERINO
HH2D2	INES	BOLAÑOS
Laguntzaile	SUSANA	NAVA
HH2D3	PATXI	SUAREZ
laguntzailea	M BELEN	SANCHEZ
HH2D4	SUSANA	ALONSO
Laguntzailea	AGURTZANE	ASTUY
HH3D1	ANA EVA	MUNILLA
HH3D2	M MILAGROS	SAGUES
HH3D3	ARACELI	PEROJO
HH4D1	ITOITZ	BERRIOATEGORTU
HH4D2	MARIAN	ALDAY
HH4D3	YOLANDA	RIVAS
HH5B1	M ELILA	GARCIA
HH5D1	INMACULADA	HURTADO
HH5D2	INES MARIA	BOLAÑOS
HHko orokerreko laguntzaile irakaslea	MAIDER	ARANA

LEHEN HEZKUNTZA

LH1B1	M LUISA	IBAÑEZ
LH1D1	LUTXI	FERNANDEZ
LH1D2	PAKI	RODA
LH2B1	SORKUNDE	OLABARRIA
LH2D1	MANOLI	DEL RIO
LH2D2	AMELIA	RABANERA
LH3B1	BEGOÑA	LANTARON
LH3D1	FIDEL	VILLANO
LH3D2	MANUELA	FERNANDEZ
LH4B1	YOLANDA	RUIZ-BRAVO
LH4D1	JON	ETXEBARRIA
LH4D2	ASUN	AIZPURUA
LH5B	ESTIBALIZ	MARTINEZ
LH5D1	LUIS ANGEL	VILLATE
LH5D2	MITXEL	GARCÍA
	ITZIAR	OLAZABALAGA
LH6D1	ISABEL	DEL RIO
LH6D2	PILITXU	ASPURU

HEZKUNTZAN LAGUNTZEKO ESPEZIALISTAK

MARTA	ABIEGA
AITZIBER	FERNANDEZ
JONE	CARASA
BELEN	QUINTANA

ATEZAINAK

H.H

BITTOR	EGUIREUN
--------	----------

L.H.

JESUS	IRURTIA
MARTA	LOPEZ

IRAKASLE ESPEZIFIKOAK

AHOLKUL.	INMA	IBAÑEZ DE MAEZTU
ERLIJIOA	MARIA LUISA	COEGO
ERLIJIOA	AITOR	PRIETO
HEZ. FISIKOA	MIGUEL ANGEL	PALENCIA
HEZ. FISIKOA	BEGOÑA	ARECHAGA
INGELES ESP.	EMILIA	ALONSO
INGELES ESP.	GARBIÑE	MALAXETXEBARRIA
INGELES ESP.	DULCE	MAZA
LOGOPEDA	JOSE LUIS	BIDAGUREN
MUSIKA ESP.	ESTIBALIZ	CAMPILLO
HIPI	MARIA JOSE	PAMPIN
PTE	MARIA ANUNCIACION	ALONSO
PTE	RUTH	DIEZ
PTE	ILUMINADA	FERNANDEZ

ZUZENDARIA	MARI TERE	ARTETXE
IKASK. BURUA	GARBIÑE	GONZALEZ
IDAZKARIA	NAGORE	LANDA
EGA/AKA	NAGORE	LANDA
JANTOKI-ARD.	MIKEL	BAROJA

IRAKASTORDUAK

Haur Hezkuntzan	- Goizez: 9:15 - 12:45
	- Arratsalde: 14:45 - 16:15
Lehen Hezkuntzan	- Goizez: 9:00 - 12:30
	- Arratsalde: 15:00 - 16:30

GURASOEN HARRERARAKO ORDUTEGIA

- Haur Hezkuntzan: Hilaren lehenengo asteartean.
- Lehen Hezkuntzan: Hilaren hirugarren asteartean goizez (12:30 - 13:30)

Edonola ere komenigarria da zuen etortzearen abisua aurretik izatea, beste gurasoekin batera ez etortzeko.

ZUZENDARITZAren BISITA-ORDUAK

- Astelehenero 15:00etatik 16:00etara
- Asteartero 09:00etatik 10:00etara
- Ostiraleko 09:00etatik 10:00etara

Komenigarria da zuen etortzearen abisua aurretik izatea, beste lagunekin batera ez etortzeko.

IKASLE GURASO ELKARTEA (I.G.E.)

- ASTE KULTURALA: IPUIN LEHIAKETA Arduraduna: Isabel Grijalba
- UDAKO KOLONIAK Arduraduna: Floren Arias
- ESKOLAZ-KANPOKO EKINTZAK Arduraduna: Camino Martinez
- HAURTZAINDEGI ZERBITZUA Arduraduna: Natalia Rodríguez

Ikasleen guraso elkarteak antolatuta duela bi urtetik hona haurtzaindegi zerbitzua dago

lehen hezkuntzako ikasleentzat.

Zerbitzuaren ordutegia goizeko 8:00etatik 9:00etara ikasturtearen lehenengo egunetik

lehen hezkuntzako eraikinean. Haur Hezkuntzan, 8:15etatik 9:15etara.

60 euroko fidantza utzi behar da ekainean familiak zerbitzuan izena ematen dutenean.

Baja eman ezkerro fidantza galduko litzateke. Ikasturtea hasita norbaitek zerbitzua behar

izan ezkerro onartuko dira kupo bete arte.

Fidantza besteek bezala ordainduko beharko dute.

Prezioa monitorearen kostu osoa 9 kuotatan banatuko da. Bankuaren bidez pasako dira

urritik maiatzera nahiz eta eskolara asistentziarik ez izan.

AMPA: 634.45.03.90 634 462 230

LAN TALDEAK

ZUZENDARITZA TALDEA

ZUZENDARIA	.I TERE ARTETXE
IKASK. BURUA	GARBIÑE GONZALEZ
IDAZKARIA	NAGORE LANDA

ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAREN ARDURADUNA

AKA	NAGORE LANDA
-----	--------------

JANTOKIKO ARDURADUNA

JANTOKIKO ARD.URADUNA	MIKEL BAROJA
-----------------------	--------------

PEDAGOGI KOORDINAKUNTZAKO BATZORDEA

- Zuzendaritza taldea
- Inma Ibáñez de Maeztu : Aholkularia
- Mila Merino: HH-ko koordinatzailea
- Dulce Maza: LHko 1. zikloko koordinatzailea
- Emi Alonso: LHko 2. zikloko koordinatzailea
- Garbiñe Malaxetxebarria : LHko 3. zikloko koordinatzailea

PROIEKTUAK

HIZKUNTZ NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA

- Arduraduna: Luis Angel Villate

HIZKUNTZA INDARTZEKO PROIEKTUA

- Arduraduna: M^a Jose Pampín

BERRIKUNTZA EKINTZA PROIEKTUA: Tertuliak dialogikoak

- Arduraduna: Mari Tere Artetxe

BESTELAKO PROIEKTUEN ARDURADUNAK

- Irratia.- Manuela Fernández.
- Kantagintza.- Isabel del Río
- Bertsolaritza.-Plitxu Aspuru.
- Antzerkigintza.- Luis Angel Villate.
- IKE.- Luis Angel Villate.
- IKT eta PREMIA.- Mitxel García.
- Liburutegia: Isabel del Río.

HNPko JARDUERAK

JARDUERAK	ETAPA / ZIKLO / MAILA
1.- Antzerkigintza	L Hezkuntza.
2.- Bertsolaritza	LH.ko 6.maila, astean saio bat Arantzarekin
3.- IKE (Gelaz kanpoko ekintzak: asteartetan 16:30-17:00etara lehenengo zikloko ikaslegoarentzat)	LH
4.- Irratigintza	LH.ko 2.mailatik aurrera FM 106.9 (ostiralero 9:00etan)
5.- Eskola aldizkaria	HH. eta LH.
6.- OSPAKIZUNAK: <ul style="list-style-type: none"> Euskararen eguna. Olentzeroa Agate Deuna. Euskararen astea eta korrika. Kurtso bukaerako jaia 	Abenduaren 3an Abenduaren 23an Otsailaren 4an Apirilaren 11tik 15era Ekainaren 23an
7- KIROLAK <ul style="list-style-type: none"> Euskal kirolak ezagutu eta praktikatu 	LH.ko maila guztietan.
8.- Idazleak eskolan, ipuin kontalaria edota irudigilea.	HH. eta LH.n lortu ahal diren mailetan.

JARDUERA OSAGARRIAK

JARDUERAK	ETAPA / ZIKLO / MAILA	
<ul style="list-style-type: none"> Inauteriak. Kurtso amaierako txangoa. Kurtso amaierako jaialdia. 	Eskola osoa	<ul style="list-style-type: none"> Martxoaren 4an LH-an, Ekainaren 8an eta HH-n ekainan. LH-an ekainaren 23an eta HH-n ekainan
<ul style="list-style-type: none"> <u>Igeriketa:</u> 	Lehen Hezkuntza	ASTELEHENA 11:00-12:00 3D1 ASTEARTEA 11:00-12:00 3B ASTEAZKENA 11:00-12:00 3D2 OSTEAGUNA 11:00-12:00 4B OSTIRALA 11:00-12:00 4D1- 4D2 Otsailan hasiko dira
<ul style="list-style-type: none"> - Antzezlanak eta museoetarako bisitaldiak eskaintzaren arabera. - Udal liburutegia ezagutu. - Zinea - Bide heziketa 	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	Eskaintzaren arabera

ELKARBIZITZAREN ARAUAK HAUR HEZKUNTZAN

Eskolak ondo funtziona dezan oso garrantzitsua ikusten dugu arau batzuk errespetatzea.

Hori dela eta, hurrengo hauek kontutan hartuko ditugu:

1. Orokorrean, bai sarreretan zein irteeretan ere, ez gara ikastetxe barrura sartuko, aurretik ez badugu andereñoarekin hitzordua.
2. Andereñoarekin elkarrizketa izan nahi badugu, ordua eska diezaiokegu.
3. Ez dugu bileretara umerik ekarriko, martxa oztopatzen dute et
4. Gelan martxa ona lortzeko, guztiz beharrezkoa zaigu **EGUNERO ETA GARAIZ ETORTZEA**. Ezin badugu umea ekarri gaixo dagoelako, telefonoz emango diogu honen berri andereñoari eta bueltatzerakoan bai pertsonalki bai sinatutako ohar baten bidez justifikatuko dugu. Jantokiko bazkalkidea bada, zuzendaritzarekin ere hitz egin beharko da, 11:00etatik - 12:30etara. (☎675705791)
5. Haurrak irtetean ez dugu korroa itxiko, denok ondo ikusteko. Euria egitekotan 3 urtekoak jantokiko atetik aterako dira, beste guztiak ohiko atetik.
6. Ez dute jostailurik, dirurik ezta goxokirik ere ekarriko. Era berean euria egiten duenean, eramango duzue aterkia etxera.
7. Urtebetetzeetan ez ditugu poltsak eta goxokiak ekarriko. Patatak, gusanitoak, olibak... ekartzea hobesten dugu denok elkarrekin "askaritxo" egitea ahalbidetzen digulako.
8. **EZIN DA ERRE EGIN ESKOLAN, EZTA PATIOETAN ERE.**
9. **Guztiz debekatuta dago txakurrak jolastokian sartzea.**
10. Umeak ateratzean txizalari badira ez ditugu sekula jolastokian ipiniko, komunera sar gaitezke eta.
11. Gure seme-alabak zorriak baditu, ez gara lotsatuko. Irakaslea ohartaraziko dugu, Udalak emandako aholkuak beteko ditugu eta errebizioak astero egingo ditugu.
12. Zabuak eta ikastetxeko instalazio guztiak gureak izango balira bezala zainduko ditugu eta azalduko diegu seme-alaba haundiei ez direla haiek erabiltzeko.

OSO GARRANTZITSUA: IRAKASTORDUA AMAITU AURRETIK UMEA ESKOLATIK ATERA BEHAR BADUGU, LEHENAGO ANDEREÑOAK JAKINAREN GAINEAN IPINI.

ELKARBIZITZAREN ARAUAK LEHEN HEZKUNTZAN

Nahiz eta denok ezagutu garrantzitsuenak gogorarazi nahi ditugu:

1. Sarreretan eta irteeretan ez gara ikastetxe barruan sartuko, aurretik ez badugu irakaslearekin hitzordua.
2. Hileko hirugarren asteartetik kanpo irakaslearekin elkarrizketata izan nahi badugu erabili kurtso hasierako bileran azaldutako bidea edota telefonoz deitu.
3. Gelan martxa on bat izateko, guztiz beharrezkoa zaigu **EGUNERO ETA GARAIZ ETORTZEA (goizean 9:00etan eta arratsaldean 15:00etan)**. Umea ezin bada etorri gaixorik dagoelako, telefonoz emango diogu horren berri irakasleari eta eskolara itzulitakoan sinatutako ohar baten bidez justifikatuko dugu. Jantokiko bazkalkidea bada, zuzendaritzarekin ere hitz egin beharko da, 11:00etatik 12:30etara.
4. Sarrerak eta irteerak erosoago izan daitezen, mesedez **EZ GELDITU PASABIDEAN**.
5. **ESKOLAKO LEKU GUZTIETAN DEBEKATUTA DAGO ERRETZEA**.
6. Guztiz debekatuta dago, txakurrak patioan sartzea.
7. Gure seme-alabak zorriak baditu, ez gara lotsatuko. Irakaslea ohartaraziko dugu eta Udalak emandako aholkuak beteko ditugu.
8. Ikastetxeko instalazio guztiak gureak izango balira bezala zainduko ditugu.
9. Egunero klaseak jarraitzeko egokiak eta beharrezkoak diren materialak ekarriko ditugu. Heziketa fisikoa egiteko jantzi egokiak jantzita eta ilea batuta etorri behar dira.
10. Ezin da jostailu elektronikorik ezta telefono mugikorrik ere eskolara ekarri.
11. Komunak zabalik egongo dira arratsaldeko 16:30etatik 17:00etara.

**OSO GARRANTZITSUA: IRAKASTORDUA AMAITU BAINO LEHEN UMEA
ESKOLATIK ATERA BEHAR BALDIN BADUGU, AURRETIAZ ESANGO DIOGU
IRAKASLEARI ZUEK SINATUTAKO OHAR BATEN BIDEZ**

UDALEKO OSASUN TALDEA

Ikasturte honetan eskolako taldea honako hau izango da:

- Sendagilea: Marina Etxebarrieta
- Erizaina: Javier Caturla

Ikastetxean betetzen duten ordutegia:

- Ostegunero goizez sendagilea ala erizaina

ESKOLA-ASEGURUA ETA LAGUNTZA MEDIKOA

• **ESKOLA-ASEGURUA:**

Aseguru etxea MUTUA GENERAL DE SEGUROS da. Haur Hezkuntzako ikasleak aseguratutik daude. Lehen Hezkuntzan, jantokian geratzen direnentzat eta eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen dutenentzat ezinbestekoa da.

Asegurua edukitzeak dakar aseguru medikuak **beti** aztertu behar duela umea. Hala ez bada, ospitalera eramaten baduzue aseguru medikuak aztertu gabe, istripua eskolan gertatu dela esan ezkerre Osakidetzak faktura pasako dizue.

• **LAGUNTZA MEDIKOA:**

Ikasleren batek istripurik izanez gero honela arituko gara:

- **Ikaslea ASEGURATURIK BALDIN BADAGO:**

Aseguru medikuari (IKASLARIN laguntza medikoa) telefonoz deituko diogu eskolara etor dadin. Gehienetan, ikastetxean bertan sendatuko dituzte ikasleak, baina Ospitalera eramatea beharrezkoa ikusiko balu, Klinikara eramango luke. Orduantxe telefonoz deituko genizueke hara joateko, zuen seme-alabak horrela lasaiago egoten baitira. Horregatik edozein telefonoren zenbaki aldaketaren berri eman behar diguzue, edo telefonorik ez baduzue konfidantzako pertsonaren batena.

- **Ikaslea ASEGURATURIK EZ BADAGO:**

Basurtuko Ospitalera eramango genuke eta une horretan abisatuko genizueke zuek ere hara joateko. Gurasoek lekualdaketaren ordaina egin beharko dute. Eskola aldian ikasleren bat gaixotzen bada, bere bila etortzeko deituko dizuegu. Zuen etxeetan inor ez egotekotan ez genieke inongo kasuan joaten utziko, nahiz eta etxeko giltza izan.



ESKOLA JANTOKIA

1.- ANTOLAKETA OROKORRA

Eskola jantokiko **kudeaketa zuzenean** arituko gara **Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailapean** eta **Haur eta Lehen Hezkuntzako Eskolak** berak zuzendutako kudeaketaz.

Asteartean, irailaren 7an, eskola-jantokia hasi da. Ikasturte honetan 179 egun izango dira.

Ordainketa hilaren hasieran helbideratzearen bidez (inolako gasturik gabe) izango da:

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN:

- **79,56 €ko bederatzi hileroko kuotak** (urritik ekainera) irailaren 7an hasiko direnentzat (179 egun x 4,00 € eguneko)
- **75,56 €ko bederatzi hileroko kuotak** (urritik ekainera) irailaren 20an hasiko direnentzat (170 egun x 4,00 € eguneko)
- **71,56 €ko bederatzi hileroko kuotak** (urritik ekainera) urriaren 1ean hasiko direnentzat (161 egun x 4,00 € eguneko)

Kuotak ez ordaindu eta jantokiko arauak ez betetzeagatik jantokirako lekua galduko da.

Eskola Kontseiluak erabakiko du nori kendu jantokirako lekua.

Menuak:

Menuak ikastetxean bertan prestatuko dira..

Bazkaltiar guztiek menu bera jango dute. Nolanahi ere, menu edo dieta bereziak onartuko dira, janari-alergia edo antzeko arazoak direla eta, medikuaren txosten ofizialak hala gomendatzen duenean. Txosten horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: menuaren ezaugarriak eta betebeharrak, baita bazkariak jasan ezin duen janaririk ustekabeen hartuz gero erabili edo jarraitu beharreko protokoloa ere.

Hiruhilabetero orri batean menuak azalduko zaizkizue eta bai jantokietan bai iragarki-taulan ipiniko da.

Ohiko bazkaldarrak:

Ohiko bazkaltiantzat hartua izateko, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek **ikasturtean zehar 4 egunetan** erabiliko dute jantokia, gutxienez eta 3 egunetan Bigarren Hezkuntzan .

Urte 2ko jankideek jantokira egokitzeko epe bat izando dute ohiko jankide bezala zerbitzu erabiltzeko, eta epe hori gehienez ere azaroaren 30a arteluzatuko da.

Ikasturtea hasi eta gero jantokia erabiltzen hasten diren bazkaltiarren kasuan, ohiko bazkaltiarzat joko dira baldin eta une horretatik jantokiko zerbitzu amaiera bitarte geratzen diren egunen %80an, gutxienez, erabiltzen badute. Ohiko bazkaltiar diren ikasleek halakotzat eman beharko dute izena; eman ere, jantokiari buruzko behin betiko datuak Sailera igortzeko epea amaitu baino lehenago, **urriaren 15ean**, hain zuzen ere.

Noizbehinka geratzeko aukera izango da. Honetarako eskura izango dituzue **Lehen Hezkuntzako atezaintzan** (Iturriaga 58) eros daitezkeen **txartelak**

Zuen erosotasunarako 5 txarteletako multzotan salduko dira **4,60 € na (23,00 €)**.

Horrela behar duzuenean, ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako sarreretan horretarako kokaturik dauden **postontzietan** sar ditzakezue ondo betez gero eta dagokizuen irakasleari jakinarazi.

Kurtso amaieran zuzendaritzan utz ditzakezue erabili gabeko txartelak dirua berrezkuratzeko.

Jantokira ez etortzekotan arduradunari (tlf. **675705791**) esan beharko zaio **11:00 – 12:30** ordutegian. **Abisua eman den egunetik aurrera** deskontatuko da. Horretarako Jantokira **gutxienez bi astetan** falta izan beharko da.

Ikasle bazkaltiarrek Hezkuntza Sailaren jantokiko **bekarik jasotzen badu, ezin da inola ere ezer itzuli**

Egin beharko diren diru-itzulketak **ekainaren kuotan** gauzatuko dira.

Ikasleek ez dute eskolako esparrutik alde egiterik izango beraien guraso edo tutoreen **baimen idatzirik gabe**, jantokiko lan-pertsonalari eman beharko diote.

Bazkalkideek Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkarateak (BIGE) eskaintzen duen eskola-asegurua **abonatu beharko dute, ikastetxean bertan aseguruako medikuak sendatzearen.**

Edozein kontsulta, zalantza, iradokizun, kexa... jantokiko arduradunari zuzenduko zaio.

2.- JANTOKIAREN FUNTZIOAK

Jantoki eskolarraren betebeharrak nagusia giza-laguntza eskeintzea da, dudarik ez. Hala eta guztiz ere, "Eskola jantokia" denez gero, heziketa lanari jarraipen ematen alhaleginduko gara. Beraz honetaz arduratuko gara:

- Eskolako Osasun Zerbitzuak aztertuko ditu menuak udalaren nutrizio unitatearekin batera.
- Bazkietan goxokirik ez da egongo.
- Zaindarien umeei jaten dutenaren kontrola eramango dute.
- Gelako heziketari jarraipena eman.
- Euskaldun giroa.
- Poliki poliki garbitasun ohiturak lantzen hasiko gara

3.- SUKALDEKO PERTSONALA ETA MONITOREAK

- Hasieran 26 zaindaria, 2 sukaldaria eta 6 laguntzaile izango ditugu horrela banandurik:
 - Haur Hezkuntza:
 - 14 zaindaria
 - sukaldaria 1
 - laguntzaile 2
 - Lehen eta Bigarren hezkuntza:
 - 12 zaindaria.
 - sukaldaria bat
 - 4 laguntzaile.

Jantokiaren martxa ona ez oztopatzeko jantokian dauden langileak ez molestatzea eskatzen dizuegu.

Edozein zalantza, iradokizun eta abar, jantokiko arduradunari zuzen diezaiokezue.

Jaten duten ala ez jakiteari oso garrantzitsu deritzogunez, egunero **bazkaltzen EZ dutenei** ohartxo bat bidaliko zaie zer ez duten jan zehaztuz.

Ez baduzue ezer jasotzen, ondo jan dutela esan nahi izango du.

2 eta 3 urteko bazkideen kasuan **informazio hori egunero eta ikasle guztiei zuzenduko zaie.**

Ez da beste inolako informe idatzirik egongo.